ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 9. zenbakia | 2018ko abendua

# errenteria
## HERRI BIZIA

# GOI MAILAKO ETA HEMENGO KIROLARIAK
## *Deportistas de aquí, y de categoría*




*Udaltzaingoa* 3. ORR. >>
*Argazkiak* 6. ORR. >>
*Herri Bizia* 8. ORR. >>
*Herriko kirolariak, goian* 12. ORR. >>
*Errenteria Bizia* 15. ORR. >>

# Trafiko, Garraio, Herritar Segurtasuna eta Herritar Babesa
# Tráfico, Transportes, Protección Ciudadana y Protección Civil

## 2017 urtean Errenteriako Udaltzaingoak 21.202 interbentzio egin zituen
En 2017 la Policia Municipal de Errenteria efectuó 21.202 intervenciones




## 2004-2017 urteen arteko salaketa judizialak
Denuncias judiciales 2004-2017




## LANGILEGOA PLANTILLA

**1** Udaltzaingoko ofizial burua / *Oficial de policía*

**4** Ofizialordeak / *Suboficiales*

**10** Lehen mailako udaltzainak / *Agentes de primer nivel*

**62** Udaltzain / *Agentes*

**6** Administrari eta laguntzaile / *Administrativos y auxiliares*

## IBILGAILUAK VEHÍCULOS






# De la seguridad, al servicio

*La función de la administración pública es servir a la ciudadanía. Uno de los servicios que presta es el de la policía municipal. Los quehaceres que tiene, en el caso de Errenteria, son los de ofrecer seguridad, regular el tráfico, incluyendo el aparcamiento, y ser, de algún modo, la cara visible del Ayuntamiento a pie de calle.*

E El Ayuntamiento de Errenteria, estos últimos años, está cambiando el modelo policial. Todo surge a raíz de una reflexión realizada entre los años 2011 y 2012. Llevan a cabo un diagnóstico y proponen una serie de propuestas: la imagen simbólica sería la nueva figura de policía de barrio. «Es otra forma de proceder en el día a día», precisan desde el Ayuntamiento. El mayor cambio que se da es que se pasa desde un modelo reactivo a uno preventivo y proactivo.

Entre los quehaceres del día a día que tiene un policía de barrio está hablar con las vecinas y los vecinos, las asociaciones vecinales, las personas que trabajan en la hostelería y el comercio. El objetivo es conocer lo que ocurren en el barrio de primera mano. Así, quienes tienen la esta responsabilidad en el ayuntamiento pretenden prevenir delitos, antes de que se produzcan. Para ello actúan, incluso, en cuestiones de ámbito privado.

Con el cambio de modelo han llegado unas formaciones específicas: se han trabajado aspectos como las habilidades sociales, la empatía y la asertividad. Los y las responsables del ayuntamiento quieren que la policía municipal sea algo cercano a la ciudadanía,

con quien tienen que interactuar en el día a día. Por eso, en el Ayuntamiento piensan que es importante que los y las errenteriarras acerquen con naturalidad a los agentes. «Hay que pensar que está a nuestro servicio, para los grandes o pequeños problemas que puedan surgir. Pero sobre todo, para que dejen de producirse». Por eso, la clave es la colaboración entre todas las partes.

## Segurtasuna zeharkako lan lerroa da orain

Además de ser la cara visible del ayuntamiento en los barrios, también son los ojos de la institución. «Que una papelera esté rota un día no es problema, pero si se tira seis meses, sí. Al final puede derivar en otra cosa más grave. Si se arregla con rapidez, no llega a ser un problema. Así, avisan al ayuntamiento y se puede actuar de una forma rápida y prevenir», comentan. También se encargan de poner bandos y velar por el cumplimiento de las ordenanzas, entre otras tareas.

Otro de los trabajos que este cuerpo lleva a cabo es el de regular el tráfico cerca de las escuelas en las horas de entrada y salida. Además, para acercar aún más la Policía Municipal a la ciudadanía, una oficina móvil, que desde 2013 se desplaza a los barrios, y en la propia entrada de la casa consistorial hay un servicio inspección.

Para poner en marcha esa policía de barrio, se han necesitado más agentes, en contraposición al modelo reactivo. «Las plazas eventuales, sin cubrir, se sacaron a oferta pública. En este momento, al incorporar los servicios de grúa y OTA, ha permitido tener más efectivos para la seguridad». Y es que, como afirman desde el Ayuntamiento, los agentes que controlan la OTA, en caso de que ocurra algún incidente que tenga que ver con la seguridad, este pasará a ser su prioridad hasta que se solucione. Además, dentro de poco habrá 11 agentes más. Una parte de este aumento





# Polizia eredua, erantzunekoa izatetik proaktibo izatera

de plantilla se destinará a reforzar el servicio que se da en los barrios.

## La seguridad, transversal

Aparte de transformar el modelo policial, el ayuntamiento está transitando hacia un nuevo concepto de seguridad. Así, en vez de ser algo meramente policial, quieren que abarque gran cantidad de ámbitos, que sea transversal: bienestar social, deportes, cultura...

Antes la seguridad dependía de Alcaldía, y comprendía a la Ertzaintza y la propia Policía Municipal. Sin embargo, a día de hoy, funciona un Consejo Asesor de Seguridad Ciudadana en el que aparte de los ya citados, toma parte muchos más miembros: los departamentos de Bienestar Social, de Igualdad y de Cultura; Cáritas; SOS Racismo; asociaciones de drogodependencia... «Se plantean las cuestiones que hay, y se proponen soluciones, soluciones compartidas. Se plantean intervenciones de carácter cultural; o se plantea tal acto porque necesitamos este espacio: o mantenimiento, para que ciertos espacios estén más pulcros... ¿Por qué? Porque lo preventivo trata todos esos ámbitos», afirman dese el Ayuntamiento.

Ahora mismo, tienen entre manos el Plan de Prevención de Seguridad. El borrador es de julio —fue encargado al Instituto Vasco de Criminología—, y pretenden mejorar el trabajo en la seguridad y la percepción de inseguridad. «Se tiene que entender por qué hay ciertas y ofrecer alternativas, analizarlo y tratar de cambiar ese entorno y que esas personas tengan salidas. Hay que abrir puertas en y ofrecer alternativas», afirman.

Reiteran que las y los errenteriarras tienen que tener claro que la Policía Municipal es un servicio y que pueden usarlo si es necesario, Por otra parte, las y los responsables municipales reconocen a los agentes el trabajo que están realizando. Y es que la comunidad la hacemos entre todos.



## ERRENTERIA, HIRI SEGURUA

Errenteria nahiko herri segurua da, kriminalitate tasa Bizkaiak eta Arabak baino baxuagoa du, eta arau hausteen tasa behera egiten ari da 2011 urteaz geroztik. Horiek dira EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuak (KREI) Errenteriako segurtasun arloari buruz 2017an egindako azterlanaren ondorioak.

Ikerketan, datu objektiboak aztertu dituzte eta baita herritarren pertzepzioa ere. Datu objektiboek herria nahiko segurua dela erakutsi dute, ez duela kriminalitate datu alturik, eta jaisten ari dela. Horrek talka egiten du herritarren pertzepzioarekin. Izan ere, inkesta egin zaien askok uste baitu Errenteria ez dela hiri segurua. Are gehiago, segurtasuna jaisten ari dela pentsatzen dute. «Pertzepzio hori ez dator bat errealitatearekin, eta baina hartu behar da. Pertzepzio horren gainean eraiki behar ditugu, beraz, gure lan ildoak».

2017an izandako arau hauste penalak %0,7 jaitsi dira Errenterian, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban %1,46 igo diren bitartean.

# Herriko museoak eta erakusketa tokiak,

## Kapitain Etxea, Jantziaren Zentroa
## Kapitain Etxea, Centro del Traje

Madalen kalea 3.

**Harremana eta erreserbak Contacto y reservas:**
943 44 96 92 - jantziarenzentroa@errenteria.eus

**Noiz dago zabalik? ¿Cuándo abre?**
- Larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
  Sábados de 11:00 a 14:00 y de 17:00 a 20:00.
- Igande eta jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara.
  Domingos y festivos, de 12:00 a 14:00.




## San Marko gotorlekua
## Fuerte de San Marcos

San Marko bidea, z/g. Camino de San Marcos, s/n.

**Harremana eta erreserbak Contacto y reservas:**
943 44 96 38 - turismoa@errenteria.eus

**Noiz dago zabalik? ¿Cuándo abre?**
- Aste Santutik urrira, asteazkenetik igandera 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.
  Desde Semana Santa hasta octubre: de miércoles a domingo de 11:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:00.





## Fanderiako errota - Ibaiaren etxea
## Molino de Fandería

Dolores Ibarruri zumardia, z/g.
Alameda Dolores Ibárruri s/n.

**Harremana eta erreserbak Contacto y reservas:**
943 49 45 21 - turismoa@oarsoaldea.eus

**Noiz dago zabalik? ¿Cuándo abre?**
- Larunbat, igande eta jaiegunetan 10:00etatik 14:00etara.
  Sábados, domingos y festivos de 10:00 a 14:00.















*infórmate del día a día en*
***herriko egunerokotasunaren berri izateko***

# HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus

## *En la mesa también, iguales*
*Con la iniciativa Bizilagunak, han compartido una comida sin preguntar si se es de allí o de aquí.*



ZU! 010
Zure Udala
SERVICIO DE ATENCIÓN

## *A tres pulsaciones*
*Sólo tienes que pulsar el 0, el 1 y el 0 de tu teléfono para que se te abran todas las puertas del Ayuntamiento: 010.*

## *11 egun, baina betirako*
*Euskaraldiak euskararen erabilerari bultzada eman nahi izan dio, 11 egun baino gehiagoz luzatzeko asmoz.*





## Irribarre batekin, ongizaterantz

*Bizipozaren Jaiarekin haurren eta familien ongizatean jardunean dabiltzan elkarteen lana ezagutarazi dute.*








## Cortos, pero intensos

*El festival de cortos Villa de Errenteria se ha desarrollado dentro y fuera de la sala de cine.*

## Ikuspegi feministan sakontzen, eraldatzeko

*Eraldaketa Feministarako Eskoletan ehunka emakumek egin dute ekarpena.*



# Auzoetan Bizi
# GALTZARABORDA







## Más accesible

*Con el nuevo ascensor que une la calle Urdaburu con las calles Murumendi y Jaizkibel el barrio es mucho más accesible para sus habitantes, y para todos y todas las errenteriarras. Es el octavo ascensor público de la villa (el noveno está en construcción en Beraun); y, entre otros, sirve para conectar más eficaz y fácilmente con el polideportivo municipal y el centro de salud de Beraun. Se ha hecho una inversión de 625.000 euros.*

## Argi hobea, eta merkeagoa

*Urtarril-otsailean auzoko kale-argiteri berria jartzen hasiko da udala. Orotara, 595 argi puntutan LED erako argiak jarriko dira, farolak mantenduz. Trukearekin, egungo energia kontsumoa %77 gutxituko da, eurotara eramanda, 213.000 euroko aurrezkia urteko. Aldaketa osoaren zenbatekoa 317.664 eurokoa da. Horrela, urteko diru kontuan aurrezteaz gain, iraunkortasunaren aldeko apustua egiten jarraituko du udalak, beste auzoetan egiten ari den modura.*







## Seguro y práctico

*Con la rotonda que se va a construir en la a venida Galtzaraborda, a la altura de las piscinas municipales de Beraun, se conseguirán varios objetivos. Se va a reordenar el tránsito de vehículos y viandantes, siendo para estos una zona mucho más segura que la actual y a la vez más accesible, ya que en ese lugar se encuentran dos paradas del Urbano. Se suprimirá la isleta y se espera que los vehículos transiten de una forma más sosegada y ordenada, y la conexión con las calles cercanas y Murumendi será mucho más fácil.*

## Itxaronaldia, gusturago

*Ekialdebus nahiz herri barruko autobus zerbitzuek erabiltzen dituzten bi geltokitako markesinak eraldatu dira, auzotarrek hala eskatuta. Zehazki, Urdaburu 29ko eta Parke kaleko 28. zenbakien inguruan dauden markesinak berritu dituzte, garraio zerbitzuaren zain daudenentzat gozagarri. Gainera, horien inguruan urbanizazio lan txikiak egin dira, geltokiak bakarrik ez, ondoko zonaldeak eraberritzeko.*

# //udal taldeen mezuak//

## OPORTUNIDADES PERDIDAS

[PSE-EE] Este último trimestre se ha tratado los dos temas anuales más importantes para la gestión y desarrollo del Ayuntamiento y para los ciudadanos; las Ordenanzas Fiscales y los Presupuestos.

El Grupo Socialista ha trabajado con seriedad y responsabilidad, realizando propuestas en ambos temas conscientes de su importancia, con el ánimo de mejorar e intentar consensuar. De nuevo hemos encontrado indiferencia y falta de interés por acordar. Ni tan siquiera una llamada de cortesía.

Luego resulta que proponen medidas presentadas en años anteriores por el Grupo Socialista que rechazaron, como las ayudas al alquiler para jóvenes. Lo triste es que son estos jóvenes los que han perdido dos años de unas ayudas que habrían sido muy beneficiosas para su emancipación.

Seguimos trabajando.

## EUSKARALDIA BESTE GAI BATZUETARAKO IRAKASGAI

[EAJ-PNV] Bistan da Euskaraldia ekimen arrakastatsua izan dela, herritarrak inplikatzeko eta motibatzeko gai izan delako. Gure hizkuntza ohiturak aldatzeko ahaleginean, bakarrik ez gaudela eta zerbaiten parte garela sentitu dugu eta hortik beste ohitura batzuk aldatzeko irakasgaia atera dezakegula uste dugu.

Ez dugu esango «Birziklaldi» bat antolatu behar dugunik, baina argi dago, hondakinak egoki sailkatu eta gure eguneroko ohiturak aldatzeko ere lagungarri litzatekeela guztiontzat onuragarria den ahalegin kolektibo horretan bakarrik ez gaudela eta zerbaiten parte garela sentitzea.

Guk beti sinetsi dugu sentsibilizazioan eta kontzientziazioan. Errenterian ohiturak aldatzen ari gara eta gaikako bilketaren tasak hobetuz doaz pixkanaka. Egin dezagun ahalegin bat erakundeetatik herritarrek lan horretan bakarrik ez daudela senti dezaten. Astindu ditzagun baita gure ohiturak gai honetan.

## EN 2019, MÁS Y MEJOR ERRENTERIA

[IrabaziZ] Llega 2019. Desear en lo personal lo mejor para cada cual. En lo colectivo trabajaremos por seguir haciendo una mejor Errenteria. Recientemente hemos aprobado los presupuestos municipales para este próximo año. Son una buena herramienta que surge de poner a las personas y sus necesidades en el centro de las actuaciones municipales. Escuchar, atender y actuar ha formado parte de la labor del equipo de go bierno municipal y del grupo municipal de Errenteria IrabaziZ.

Datozen jai egun hauetan, arrazoi ezberdinak direla eta gure herrian eta etxeetan ez dauden bizilagunak ere gogoan izan nahi ditugu. 2019an Errenteria eta herria osatzen dugun pertsonekiko gure konpromisoa indartu nahi dugu. Jai zoriontsuak denontzat!

## POLIZIA EREDUA ALDATUZ

[EH Bildu] Denok bizi nahi dugu lasai eta seguru. Baina segurtasuna zentzu transbertsalean ulertu behar dugu baldin eta gizarte konplexu honen beharrei modu egokian erantzun nahi badiegu. Duela urte batzuetatik polizia eredu berri batean ari gara lanean, hurbilagoa, hainbat esparru integratuko dituena eta zerbitzu bat eskainiko diena kulturari, kirolari, gizarte ongizateari etab. Finean, herri guztiari.

Azken batean, lanean ari gara eredu erreaktibotik prebentzioan indarra jartzen duen eredura pasatzeko. Bide horretan, zerbitzua zabaltzeko eta kalean presentzia handiagoa bermatzeko 11 agente gehiago integratuko dira eginkizun hauetara. Zentzu honetan, zabaltze horrek 11 horietatik parte bat auzoetako udaltzainen zerbitzua indartzea izango du helburu.

Hori da erronka: eskema zaharrak gaur egungo errealitate eta beharretara egokitzea.



# Kirolean ere, herri bizia

***Errenteriak goi mailako kirolariak ekoizten jarraitzen du. Zerrenda luzeagoa da, baina horren adibide dira Maddi Tarragona, Sebastian Latigo Perez, Jon Bautista eta Ane Santesteban.***



Tarragona, 13 urterekin, Espainiako txapeldunordea da piraguismoko K2n. Latigok duela gutxi lortu ditu Espainiako eta Europako Batasuneko txapelketak, oilar pisuan. Santestebanek Top-10ean bukatu du Italiako Giroa eta badaki zer den Olinpiar Jokoetan egotea. Jon Bautistak, berriz, behin baino gehiagotan zulatu ditu munduko liga garrantzitsueneko ateetako sareak.

Santesteban eta Latigo bakoitzaren aitarengatik hasi ziren kirola praktikatzen. Santestebanek azaldu duenez, bere aita Laguntasuna Txirrindularitza Elkartean laguntzen aritzen zen, eta harekin joaten zen lasterketa askotara, baita bizikletan ibiltzera ere. Probatu behar zuela esan, eta modu serioan hasi zen ibiltzen, gaur arte. Hori bai, duela bospasei urte erabaki behar izan zuen profesional izatea, eta urrats hori eman zuen.

Latigo Perezek 19 urterekin eman zuen jauzi hori, duela hiru, alegia. Zazpi urte zituela hasi zen erakustaldiak ematen, eta geroago etorri ziren borrokaldiak. «2013an lehenengo aldiz joan nintzen Espainiako Txapelketara, eta irabazi nuen. 2014an, berdin. Espainiako selekzioak deitu ninduen, eta Murtziara joan nintzen bizitzera; Irlanda, Lituania eta horrelako herrialdeetara joaten nintzen». 11 borrokaldi ditu orain arte; hamar irabazi ditu, eta bat nulua izan da.

Maddi Tarragona bere ahizparengatik hasi zen Donostia Kayak klubean. Ikastetxean eman zioten kirol ikastaroei buruzko informazioa, eta taldean hasi zen. Tarragonak ahizparen bidea jarraituta, probatu, lehenengo txapelketa irabazi eta are gehiago motibatu zen.

Jon Bautistak du ibilbide *ohikoagoa*. Orereta Ikastolan hasi zen futbolean, Eskola Kirola egiten, eta Touringen eskolan ere aritzen zen. Herriko klubean ibili zen, Haur Mailako bigarren urtean Realak fitxatu zuen arte.

Futbolariak uste du Errenteriak azpiegitura onak dituela bere kirolean aritzeko. Hiru klub daude, eta hirurentzako tokia dago bai Fanderiako zein Beraungo futbol zelaietan. «Azkenean, Jonek esaten duena da», jarraitu du Latigok, «futbolak eramaten ditu baliabide gehienak. Baina beno, boxeoa pixkanaka kalera ateratzen ari gara, jendeak ezagut dezan”. Team Latigokoak Pio Baroja ikastetxe zenean entrenatzen dira, udalak utzitako gimnasioan.

Txirrindularitzan, berriz, eskualdeko taldeek elkarri laguntzen diote. Horrela, Santesteban Lezoko Allerrun ibili zen Gazte Mailara arte; ondoren, Laguntasunan. Inguruko jendea izan du bidelagun, eta horrek lagundu dio txirrindularitzan jarraitzen; kuadrilla ere bihurtu zen.

Tarragonaren kasua ezberdina da: Trintxerpen dute kaia, eta Pasaiako badian barrena entrenatzen dira. Hori bai, noizbehinka Oiartzun ibaian gora egiten dutela ziurtatu du.

## Eredu

Jon Bautista da bere gainean foku mediatiko handiena duena. Realaren lehen taldera iritsi bezain pronto, hainbat gol sartu zituen, eta hortik aurrera ezagunago bilakatu zen: «Futbolak hori dauka... Lehen taldera pasatu nintzenean gol batzuk sartu nituen, eta jendeak ezagutzen ninduen kaletik: argazkiak, sinadurak eta abar eskatzen dizkidate. Pixkanaka ohitzen zara, eta eskertzekoa da jendea zurekin dagoela ikustea».

Maddi Tarragona txanponaren beste aldean dago. Ziurtatu du klasekideek eurek ia ez dutela ezagutzen bere ibilbidea, nahiz eta egunkarietan agertu den. Euskal Herrian arrauna piragua baino ezagunagoa dela azaldu du, eta Espainian kontrakoa gertatzen dela. Hala ere, ezagunagoak diren Hibaikakoekiko ez du inbidiarik; bere emaitzekin pozik dago.

Urriaren 6an, Galtzarabordako kiroldegia lepo bete zuen Perezek: 1.400 lagun hurbildu ziren boxeolari errenteriarrari animoak ematera.

*Siendo como son, deportistas de élite, tratan de ser un modelo para los más jóvenes y transmitir valores*

«Boxeoa izateko, asko da. Nabaritu dut jendeak asko babestu gaituela. Hala ere, herrian ezaguna ez naizen arren, askok badakite *Latigo* izeneko bat badagoela».

Santestebani animoak emateko ekitaldia antolatu zuten 2016ko madalenetan, Rioko Olinpiar Jokoetara (Brasil) joan aurretik. Hala ere, onartzen du ez dela oso ezaguna herrian. «Duela bi urte Egiluze ikastetxean izan nintzen hango umeei nire ibilbidea kontatzen. Gero kaletik edo taberna batean ikusten nautenean ‘Begira, Ane!’ esaten didate». Penaz esan du txirrindularitza ez dela oso



**Tarragona**

**¿Qué otro deporte practicarías si no fueras piragüista?**

No lo sé, la verdad. Practicaría natación o algo parecido, pero no lo he pensado nunca. Sería un deporte donde haya que mojarse.



**Bautista**

**¿Qué haces para desconectar?**

Quedar con los amigos, subir a Peñas de Aia... Eso sí, siempre donde haya poca gente.

ezaguna: «Nahiz eta emakumeen txirrindularitza okerrago egon, uste dut jende askok ez dakiela nor den Aritz Bagues».

Kirolari profesionalak izateak erreferentzialtasun bat ematen die Santestebani, Perezi eta Bautistari. Txirrindularia Gabonetarako bueltatu da Errenteriara, eta gustatuko litzaioke haurrekin aritzea, beti saiatu ohi den bezala: «Garrantzitsua dela iruditzen zait, eredu bat edukiz gero errazagoa delako txirrindularitzan hastea edo jarraitzea».

Bautistak, berriz, Touringekin elkarlanean, bere izena daraman kanpusa antolatu zuen pasa den udan. Futbola amu moduko bat izan dela esan du, eta gaztetxoek denetarik egin zutela: txangoak, eskalada... «Kanpusa ez zen haurrak etorkizunean futbolari izatera bideratzeko, baizik eta ongi pasa zezaten eta kluba bera suspertzen laguntzeko».

Perezek ere bide hori hartu du. Esan du gimnasiora hurbiltzen zaion orori harrera egiten diola. Psikologia eta diziplina handia behar du boxeoak, eta horiek bizitzako beste esparruetarako balio dutela uste du: «Belaunaldi gazteak, agian, ohi baino goizago hasten dira behar ez diren gauzak egiten, eta garrantzitsua da okupatuta egon daitezen».

Tarragona oraindik gaztea da, baina diziplina handia du. Izan ere, astean sei aldiz entrenatzen da: «Piraguismoa ikastea zaila da. Ez da egun bakarrean ikasten; askotan erortzen zara. Bi hilabete-edo egon behar duzu praktikatzen. Praktika hartzen duzunean, *engantxatzen zaitu*». Bere kasuan, gainera, kirolak berak baino, taldekideak lotzen ditu gehiago, «familia baten antzekoa» delako.

Errenteria kulturarekin oso lotutako herria da, baina kirolarekin ere harremanetan dagoela uste dute kirolariek. Perez: «Badago jende gehiago kirolaren inguruan. Lehen, uste dut, futbola jarraitzen zutenek gainontzeko kirolak ere babesten zituzten. Orain, boxeoa gustuko duenak ez du atletismoa jarraitzen. Kirola bera babestuago zegoen». Antzeko iritzia du Santestebanek.

Bautistaren arabera, ikastetxeetan lan ona egiten ari dira, kirol ezberdinak sustatzen. Berak kirol dezente ezagutzeko aukera izan zuen, baina futbolaren bidea hartu zuen. «Ongi dago horrelako gauzak egitea, gaur egungo umeek zer egin nahi duten jakiteko».

Santesteban iritzi horrekin lerratu da: «Errenterian, aspalditik, lan handia egiten ari da hori guztia aurrera eramateko. Txikitatik gehiago lantzen da kirol aniztasuna, eta horrek laguntzen du kirolari gehiago ateratzea».





**Látigo**

**Cuando pasas por una pastelería, ¿qué sientes?**

Cuando tengo que controlar mi peso... Me he acostumbrado, pero al principio fue difícil. Cuando mi pareja me pregunta '¿vamos a cenar pizza', yo le respondo 'Sí, venga ¡Mañana tendré que ir a correr!'. Es un reto, y me gusta.



**Santesteban**

**¿Cómo se siente una al ser olímpica?**

Fue la opción para seguir en el ciclismo. En el ciclismo femenino, es difícil salir adelante. Pedí una ayuda a Basque Team en enero, pero no me la concedieron. Me dijeron que si iba a los Juegos Olímpicos, me darían en agosto lo que no me habían dado hasta entonces. Deportivamente, los Campeonatos del Mundo los siguen los aficionados al ciclismo; los Juegos Olímpicos, todo el mundo.



## Argazki zaharra

No ganó. Fue segundo. Era el gran favorito y corría en casa. Pero se tuvo que conformar con la plata, el segundo escalón del podium. Lástima. En esta foto se ve llegando a meta al gran corredor errenteriarra Miguel Peña, del equipo de la sociedad Lagun Artea. La instantánea es de marzo de 1923 y corresponde al Campeonato de Gipuzkoa de cros en asfalto. Peña era el vigente campeón de Gipuzkoa y de España de esa modalidad atlética, pero se le escapó la victoria. El público, como se ve en la imagen, no supo aplaudir o respetar el rostro apesadumbrado y exhausto de Peña cruzando la meta, guardando silencio. Hoy en día, hablar de atletismo en Errenteria es igual a referirse al Club Atlético Rentería / Errenteria Atletismo Taldea (CAR/EAT). El CAR Tiene 61 años de historia, y para este 31 de diciembre han organizado la decimosexta edición de San Silbestre Lasterketa. Acabemos el año siendo primeros en salud, participación, y alegría. Urte berri on!

Irudia: Kutxa Fototeka, Ricardo Martinen funtsa.

## Ba al zenekien...

### Errenteriako kirol instalazio publikoek *12.224 abonatu* dituztela?

Errenteriako biztanleen *%31* herriko kirol instalazioetako abonatu da, hau da, Kirolkide txartelaren jabe da. *12.224* herritarrek gozatzen dute herriko kirol eskaintza publikoaz. Horrez gain, *20* kirol ezberdin praktikatzen dituzten *28* kirol elkarte edo talde federatu daude herrian: horiek guztiek *124* talde dituzte, horietatik *30* emakumeenak eta *10* misto. Errenteriako Udalak aurten *323.290* euroko laguntza eman die federatutako taldeei, eta *92.000* euro Eskola Kirola egitasmorako bideratu du. Berdintasunaren bidean, gainera, Berdintasun Sailak emakumeen hiru talde babestu ditu.



## Txoko bat

Garai bateko harresiaren ondo-ondoan dago, Nafarroako Atea zenetik ez oso urrun, Goiko Kalean daude etxebizitzen bizkarraren azpian. Beste aldean Merkatuzar du egun, garai batean herriko azoka zena. Duela gutxira arte, baserritarrak herrira euren produktuak azokara ekarri edo etxez etxe saltzera etortzen zirenean, astoak lotuta uzteko erabitzen zuten gunea da Asto Tokia. Animaliekin herri kirolak ere egin izan zituzten bertan, eta herriko jaietako gune garrantzitsu izandakoa da, beraz. Astoentzako toki zenean, baserritar bakoitzak uztai jakin batean lotzen zuen bere aberea, eta hortik aurrera esnea saltzera azokara edo etxez etxe joaten ziren, marmita zintzilik. Astoak, bitartean, han. Geldi. Aparkatuta, egungo autoen moduan.

# Udal bibliotekak
## BIBLIOTECAS MUNICIPALES

KULTURA kreaktiboa

## NEGUKO ORDUTEGIA HORARIO DE INVIERNO

Nagusia *Principal:* .................................................. 8:30 - 20:30
Ordutegi berezia *Horario especial:* .................... 2018/12/24 *eta 31* 8:30 - 15:00

Haurren biblioteka *Biblioteca infantil:* ................. 16:30 - 20:00
Ordutegi berezia *Horario especial:* .................... 2018/12/24 *eta 31* 10:00 - 14:30

Bizarain: ..................................................................... 16:30 - 20:00
Bizarain itxita *Cerrada:* .................................... 2018/12/21 - 2019/01/06

## IKASGELAK AULAS DE ESTUDIO *(Madalena kalean)*

Abenduaren 1etik urtarrilaren 20ra *Desde el 1 de diciembre hasta el 20 de enero*

Larunbatak *Sábados*

9:30 – 13:30 / 15:00 – 19:00

Igandeak *Domingos*

9:30 – 13:30

Jai egunetan itxita *Festivos cerrados*

## JARDUERAK / ACTIVIDADES

Irakurketa klubak *Clubes de lectura:*

- Haurrak *Infantil*
- Gazteak *Jóvenes*
- Helduak *Personas adultas*
- Irakurketa erraza *Lectura fácil*
- e-rakurleak *(digital)*

Erabiltzaileen prestakuntza
*Formación de usuarias y usuarios:*

- Helduak *Personas adultas*
- Haurrak *Infantil*
- e Liburutegia

Bisita gidatuak *Visitas guiadas:*

- Haurrak *Infantil*
- Helduak *Personas adultas*
- Ikastolak eta ikastetxeak *Centros escolares*
- Elkarteak *Asociaciones*

Bestelakoak *Otros:*

- Interes gunea *Punto de interés*
- Itsu-itsuan *Lectura a ciegas.*

Jarduera bereziak: kontsultatu bibliotekan edo kultura.errenteria.eus webgunean
*Actividades especiales: consultar en la biblioteca o en kultura.errenteria.eus*
Telefonoa: 943 449 635

***Aldizkari honen hurrengo zenbakiak herritik kanpo bizi den errenteriarren batek jasotzea nahi baduzu bete ezazu beheko formularioa. Si quieres que alguna o algún errenteriarra que viva fuera reciba los siguientes números de la revista háznos llegar sus datos rellenando el formulario:***

HERRI BIZIA
etorkizunaren bidean

Izena Nombre ____________________

Helbide osoa Dirección completa ____________________

____________________

..........................................................................

Entrega ezazu kupoia udaletxean edo jarri gurekin harremanetan *herribizia@errenteria.eus* edo 943-44 96 00 telefonoan.
Entrega este cupón en el ayuntamiento o ponte en contacto con nosotros a través de *herribizia@errenteria.eus* o el teléfono 943-44 96 00.

Errenteriako Udala